

CITROEN C5 BY CARLSSON

Batasun erakargarria

Carlssonek eta Citroenек elkarrekin egin duten lehen lanean, C5 autoak jaso ditu lehen fruituak. Autoa guztiz itxuraldatu dute

Citroen etxeak C5 Break autoa merkaturatu zuen urte hasieran. Hilabete batzuk geroago, sail altuko prototipoa landu dute. Horretarako, Carlsson Alemaniako etxearekin batu eta dotorezia, dinamismoa, praktikotasuna eta punta-puntako teknologia daraman autoa sortu dute. Dena dela, oraindik ez da ziurra merkaturatuko ote duten, baina bide berriak zabalduko ditu.

Citroen C5 by Carlsson autoak break modeloen ezaugarriak eskaintzen ditu, eta prototipo-rik praktikoenetarikoa dela esan daiteke. Auto honek azken belaunaldiako Hidroactiva 3 esekidura darama, eta honi esker, zama asko daramatenean sail honetako autoek izaten dituzten eragozpenak saihesten dituzte. Citroenек bakarrik erabiltzen du sistema hau.

Klase handiko motorra

V6 motorraren ahalak handitzeko, goiko aldean egin dizkio aldaketa handienak. Motor honek 235 zaldiko potentzia iristen du minutuko 6.000 bira-

tan. Bere mekanika abiadura kaxa automatiko bati atxikirik doa. Kaxa honek mando sekuentziala darama, eta eskuz alda daiteke. Abiadurari dagokionez, orduko 245 kilometro har ditzake.

Motorrari egindako aldaketak zoruari itsatsirik joateko sistemaren garapenarekin bat dator. Helburu horrekin, tamaina handiko gurpilak daramatza (225/40) eta diseinu propioa duten altzairuzko hagunak jarri dizkiote.

Itxura dinamikoa

Hagun horiez gain, C5 autoak funtzional eta bakarra egiten duten elementuak ditu. Autoaren aurrealde eta atzealdean daraman aleroiak zein alboetan barrualdetik daramatza karnajeek izaera dinamikoa ematen diote C5 prototipoari. Berrikuntzak beltzez pintatutako kanpo ispiluekin eta bi iheshodi obalekin osatzen dira. Hau guztiagatik, itxura ederra du Citroen etxeako prototipoa honek.

C5 by Carlsson autoaren



C5 BY CARLSSON

Motorra: Citroen
Zilindro kopurua: 6 Vn
Zilindrada (cc): 2.946
Gehieneko potentzia (kw/cv/rpm): 173/245/6.000
Gehieneko par-a: 320 (Nm) 3.750 biratan
Gehieneko abiadura (km/h): 245
Azelerazioa 0-100 km/h (s): 8,5
Kontsumoa hirian/ hiritik at/ konbinatua:
Balazta motak: ABS eta REF
Aurreko /atzeko balaztak:
Aireratatutako diskoak/ diskoak
Esekidurak: Hidroactiva 3
Pneumatikoak: 225/40 R18
Maletatokiaren bolumena (l): 900
Deposituaren bolumena (l): 66
Salneurria:

bidaiari-lekuari dagokionez, Frantziako etxeak bezero zorrotzenak asetzea izan du helburu eta bere lana ondo bete duela esan daieke.

Hau guztia egin ahal izateko, material bereziak erabili dituz-



Sendotasun sententzia ematen du Citroen auto berri honek.

te. Ohiko larrua erabiltzeaz gain, amareta ere erabili dute. Cognac koloreko larruak eserlekuak eta aginte-mahaiaren azpialdea betetzen du. Gris iluneko amareta, beriz, aginte-mahaiaren goialderako eta ateen paneletarako erabili dute. Cognac koloreko amareta eserleku, ateetako panel eta bidaiari-lekuko beste txoko batzuetan ere erabili dute.

Honek guztiak izaera berezia ematen dio auto honi.

Carlsson Alemaniako pres-tatzaile garrantzitsuenetarikoa bat da. Carlssonek autoak emaitza gorena ematea bilatzen du, betiere motorrari eta zoruko itsaskortasunari begira, kirol dotorezia ahaztu gabe. Honek izaera berezia ematen dio autoari, eta, gainera, ikusgarriagoa da.

1 3,61 mts.



2 3,78 mts.

Proba ezazu A Klaserik egokiena zuretzat.

- Aukerak izateak bizitza errazten du. Orain, esaterako, bi A klase dituzu aukeran, desberdinak neurrian, baina berdina ekipamenduan: EPS (egonkortasun Programa Elektronikoa), aire girotua, gidaria eta lagunarentzako airbagak, ABS
- Edo bi motor berri: A 160 CDI, 75 cv-koa, edo A 170 CDI, 95 cv-koa.
- Edo bi galinazko motor: 82 cv-tik 125 cv-ra bitartekoak.

- Zure kontzesionario ofizialera joaten bazara, eta autoa probatzen baduzu, bi lagunentzako Alemaniako bidaia baten zozketan parte hartuko duzu; han, A Klaseak egiten diren fabrika ezagutu ahal izango duzu.

- **A Klase berria. Modelo bakarra. Bi neurri.**
- A Klasea, 17.000 eurotik aurrera (2.895.116 pzt.) *.



Mercedes-Benz

AGUINAGA, S.A.

Mercedes-Benz Kontzesionario Ofiziala
Retuerto, 44. Tel: 94 497 00 74. 48903 BARAKALDO

*A Klase 140 clasic (motza). Beza eta matrikulazio zerga barne.
www.mercedes-benz.es